

PRESIDENTEA
Gentza Alamillo

AIARAKO UDALEKO UDALBATZA OSOAK 2016ko
APIRILAREN 21ean EGINIKO OHIKO BILKURAKO AKTA.

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo
José Antonio Bartolomé
Montse Angulo
Susana Martín
Lauren Uria
Esteban Hernando
Nerea Goti
Iraida Saenz de Lafuente
Xabier Artiñano

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hamabosteko apirilaren hogeita batean, hemeretzia direnean, Udaltza Osoa bildu da ohiko bilera egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut.

BERTARATU EZ

DIRENAK:

Josu Artetxe

IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak ongiatorria eman die osoko bilkurako guztiei, eta besterik aipatu gabe eguneko aztergaien zerrendako gaiak bozkatu eta eztabaidatu dituzte:

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2016ko martxoaren 17an eginiko ohiko bilkuraren akta.

Lauren jaunak (BILDU) adierazi du 9. puntuan, funtzionarioak bere gain hartuko dituen diruzaintzaren arloko erantzukizunak direla eta osagarri bat onesteko erabakiari buruzkoan, “sari” terminoa kendu behar dela; izan ere, osagarri hori bidezkoa da, ez da sari bat, baizik eta egingo duen lan gehigarriari dagokion bidezko zenbatekoa.

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, bertaratutako korporazioko kideek aho batez onetsi dute akta.

2.- Onestea, bidezkoa bada, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzu Sailak eta Aiarako Udalak Eguneko Arretarako Landa Zentroa kudeatzeko eta mantentzeko sinatutako Lankidetzaren Hitzarmena luzatzea.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Bertaratutako Udaltza Osoko kideek (Udaltza osatzen duten 11 kideetatik 10 kidek) aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide,

IKUSI DA.- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzu Sailak eta Aiarako Udalak, 2016 ekitaldirako, Arespalditzako Eguneko Arretarako Landa Zentroa kudeatzeko eta mantentzeko sinatutako Lankidetzaren Hitzarmenaren luzapena.

IKUSI DA.- Soziosanitarioa, Berdintasuna eta Immigrazioa Informazio Batzordeak 2016ko apirilaren 12an emaniko aldeko txostena.

Udalbatza Osoak aho batez hau **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- Onestea Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuak Sailaren eta Aiarako Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren luzapena, Landa-eremuko Eguneko Zentroa kudeatzeko eta funtzionamendua mantentzeko (2016). Zentroak aldi berean erabiltzeko hamar plaza ditu guztira.

3.- Onestea, bidezkoa bada, 1/16 zenbakiko Judizioz Kanpoko Kredituen Aitortza.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Bertaratutako Udalbatza Osoko kideek (Udalbatza osatzen duten 11 kideetatik 10 kidek) aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide,

IKUSI DA.- 1/16 zenbakiko judizioz kanpo kredituak aitortzeko espedientea.

IKUSI DA.- Kontu-hartzaile eta idazkariak 2016ko apirilaren 7an eginiko txostena.

AINTZAT HARTU DA.- Euskara eta Kultura, Kirola, Hezkuntza eta Gazteria Informazio Batzordeak 2016ko apirilaren 12an eginiko aldeko txostena.

AINTZAT HARTU DA.- Toki Ogasunen Lege Arautzailearen Testu Bategineko 176. artikulua eta 500/1990 Errege Dekretuko 16. artikulua (Toki Ogasunak arautzen dituen).

Udalbatza Osoak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- Onestea 1/2016 zenbakiko judizioz kanpoko kredituak aitortzen dituen espedientea, jarraian zerrendatzen diren gastuen arabera:

• 94. faktura (2015eko irailaren 22koa), Karrantza-Pozalaguako Udalarena, kontzeptua: 57 pertsona (4 €). Zenbatekoa: 228 euro, BEZa barne.

Bigarrena.- Aipatutako kredituen aitortza 2016 ekitaldiko aurrekontuari egoztea, 332.226.003 zenbakiko aurrekontu-aplikazioari, hain zuzen.

4.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Hogeitalau Euskara Elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena (2016 ekitaldia).

Iraida andreak (AB) esan du bere taldea ados dagoela, baina ez dutela ulertzen elkarteari % 90 ordaintzea hitzarmena sinatzerakoan, gainontzeko elkarteei ez baitaie ordaintzen ehuneko hori urte hasieran.

Batzordeburu jaunak ebazpen-proposamena irakurri du. Halaber, diru-laguntzen espedientea atzeratzen ari da, Yolanda baja hartuta egon baita. 2017. urterako oinarriak batzordera eramatea pentsatu dugu, ahalik eta azkarren onetsi ahal izateko, eta elkarteei diru hori lehenbailehen jasotzeko.

Komentario horien harira, Gentza jaunak dio Udalean Llanteno Haraneko Arte-Eskolaren idatzi bat jaso dutela, baina akats bategatik ez zen Kultura karpeta sartu, eta ez zen zegokion batzordean landu. Hortaz, elkarteari barkamena eskatuko diote.

Iraida andreak esan du premiazkoa denez, osoko bilkura honetan landu beharko litzatekeela.

Horren inguruko adierazpenik egon ez denez, puntua bozkatu da, eta Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide,

IKUSI DA.- Udalak interesa duela euskararen ezagutza eta erabilera udal arlo guztietan sustatzeko.

IKUSI DA.- Hogeitalau Euskara Elkartearen izena emanda dagoela Aiara udalerriko elkartearen erregistroan, eta, besteak beste, euskararen ezagutza eta erabilera soziala bultzatzea duela helburu.

IKUSI DA.- Aiara udalaren eta Hogeitalau Euskara Elkartearen lankidetzan aritzeko hitzarmena, 2016 ekitaldirako.

IKUSI DA.- Euskara eta Hezkuntza, Kultura, Kirolak eta Gazteria Informazio Batzordeak 2016ko apirilaren 12an igorritako aldeko irizpena.

AINTZAT HARTU DA.- Hitzarmen horrek arautu egiten duela Aiara udalaren Udalak Hogeitalau Euskara Elkartearen alde zuzenean emandako diru-laguntza, eta udal aurrekontuan kreditu nahikoa eta egokia duen partida nominatiboa dagoela, Udalari hitzarmena sinatzeak dakarkion gastua bere gain hartzeko.

Bertaratutako Udalbatza Osoko kideek (Udalbatza osatzen duten 11 kideetatik 10 kidek) aho batez hau **ERABAKI DUTE:**

Lehenengoa.- Onestea Aiara udalaren eta Hogeitalau Euskara Elkartearen artean 2016 ekitaldirako sinatuko den lankidetzaren hitzarmena, Aiara udalerrian euskara sustatzeko ekimenak eta jarduerak bultzatzeko asmoz.

Bigarrena.- Alkate-udalburuari ahalmena ematea, hitzarmena sinatzea.

Laugarrena.- Hitzarmena sinatutakoan, Hogeitalau Euskara Elkarteari jakinaraztea eta horren bidez helaraztea, sinatzean eta geroago Udalari aho batez onetsitzea.

5.- Onestea, bidezkoa bada, Talde Sport Servicios Deportivos, SL enpresa hautatzea Udal Igerilekuak mantendu eta zaintzeko esleipendun gisa.

Horren inguruko adierazpenik egon ez denez, puntua bozkatu da, eta bertaratutako Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide,

IKUSI DA.- 2016ko otsailaren 18ko osoko bilkuran udalaren Udalaren Udalaren igerilekuen eta euren instalazioen mantentze eta zaintza zerbitzua prozedura irekiz kontratatzearen Baldintza Ekonomiko-Administratiboen eta Teknikoen Plegua onetsi zela.

IKUSI DA.- 2016ko martxoaren 9an ALHAOn argitaratu zela lizitazioaren iragarkia, hamabost egun naturaleko epean interesdunek proposamenak aurkeztu ahal izateko.

IKUSI DA.- Eskaintzak aurkezteko emandako epean bi proposamen aurkeztu zirela. Horrela jaso da dagokion espedientean.

IKUSI DA.- 2016ko apirilaren 5ean eratu zela Kontratazio Mahaia. Mahaiak, hiru gutun-azalak ireki, aztertu eta puntuatu ondoren, proposamena TALDESPORT SERVICIOS DEPORTIVOS, SL enpresaren alde egin zuela, esleipen-irizpide guztien artean puntu gehien lortzeagatik.

IKUSI DA.- Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak, eta Ingurumena Informazio Batzordeak 2016ko apirilaren 12an emandako aldeko irizpena.

AINTZAT HARTU DA.- Azaroaren 16ko 38/2011 LEDaren bidez onetsitako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko Testu Bateratuan xedatutakoa.

AINTZAT HARTU DA.- Tokiko araubidearen oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22. artikuluan xedatutakoa.

Bertaratutako Udalbatza Osoko kideek (Udalbatza osatzen duten 11 kideetatik 10 kidek) aho batez hau **ERABAKI DUTE:**

Lehenengoa.- Hautatzea “Aiarako Udaleko udal-igerilekuak udan mantentzeko eta zaintzeko” zerbitzuaren kontratista gisa TALDESPORT SERVICIOS DEPORTIVOS, SL enpresa, eskaintza onuragarriena aurkezteagatik, pleguan xedatutako esleipen-irizpideak aintzat hartuta.

Bigarrena.- Erabaki honen berri ematea hautatu enpresari, eta eskatzea, hamar laneguneko epean (erabakia jasotzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita), pleguen IX.2 artikuluan eskatzen diren dokumentuak aurkeztea.

Hirugarrena.- Dokumentazio guztia jaso eta aldeko kalifikazioa eman ondoren, jaso den egunetik bost laneguneko epean, Alkateak Udalbatza honen eskuduntzaz eta 2016ko otsailaren 18ko erabakiaren arabera, kontratua esleituko du.

6.- Udalbatza osoari berri ematea Aurrekontu Egonkortasuna ez betetzearen ondoriozko kontu hartzen duen organoaren txostenaren, Diruzaintzaren gerakinaren erabilerari buruzkoaren, inguruan.

Lauren jaunak (BILDU) galdetu dio idazkariari Diruzaintzaren gerakinaren kargura egingo diren gastuei buruz.

Idazkariak azaldu du, Diruzaintzaren gerakinarekin finantziatzen diren aurrekontu-aldaketak, Udalbatzak edo alkateak erabaki ditzakeela, muga kuantitatibo batekin. Hori dela eta, alkateak erabaki du Udalbatzari eskatzea gerakinaren kargura egingo dira hainbat gasturen onspena; eta kontu-hartzailearen txostenean jasotako gainontzeko gastuak Alkatetza Dekretu bidez onetsiko dira, legeak ezarritako mugaren barruan.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) azaldu ditu bideratu nahi diren gastuak zeintzuk diren.

Esteban jaunak (BILDU) azaldu du partida batean dokumentazioa falta dela, Ikastolako obren proiektua idazteagatik emandako ordainsari teknikoei buruzkoa, hain zuzen: 11.500 € proiekturako eta obra zuzentzeko, eta 2.000 € segurtasuna eta osasuna koordinatzeko.

Bestetik, esan du, hasiera batean guztira 166.000 euro izango zirela, eta orain proiektu horren aurrekontua 186.000 eurokoa dela. Ez du ulertzen zergatik egin diren bi proiektu bat egin beharrean.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) azaldu du prezioan dagoen tarte hori Aiara Batuz taldeak proiektua landu zen osoko bilkuran egindako eskaera batek ekarri zuela. Bilkura horren ondoren proiektua aldatu zen, eskatutakoa aintzat hartuz. Hori dela eta, proiektuaren prezioa aldatu egin da.

Idazkariak azaldu du abenduan edo urtarrilean esleitu zitzaizola Ivani proiektu bat idaztea, 4.000 euro baino pixka bat gehiagokoa, jolastokia estaltzeko; abenduan Hezkuntza Sailari Ikastolako obra guztien informazioa eskatu zitzaion, eta obra horri dagokionez, hilabete bateko epea eman ziguten proiektua aurkezteko. Hortaz, proiektu hori idazteko zerbitzua esleitzea beste biderik ez genuen izan. Eta horrelako jarduketak Foru Planari ere eskatu zaizkionez, eta banandutako obren proiektuak eta esleipenak egiteko baimenik ematen ez dutenez, proiektu orokor bat egin behar izan dugu, Ikastolan egin behar diren lan guztiak barne hartzen dituen, baita jolastokia estaltzea ere.

Gentza jaunak adierazi du batzordean egin zen baieztapenari dagokionez, zerbitzuaren esleipeneko prezioa garestia zela esan zenean, beste hainbat esleipenen obren prezioen portzentajeen berri eman du:

- Udalaguntzari (2015) jolastokia estaltzeko proiektua egiteko eskatu zitzaion, eta ordainsaria obraren % 6,74 izan zen.
- Ikastolan egin behar diren esku-hartze guztien proiektuaren ordainsaria (horretarako Foru Planari eskatu zaio laguntza), obraren kostuaren % 7,25 da.
- Luiaondoko 1.333. lursailean egin beharreko jarduketaren proiektuaren ordainsaria (horretarako ere, Foru Planari eskatu zaio laguntza) kostu osoaren % 10, 20 izango da.
- Ikastolako aparkalekuaren proiektua egiteagatik emandako ordainsaria, kostuaren % 7,05 izan zen.
- Ikastolako komunaren proiektua egiteagatik emandako ordainsaria, kostu osoaren % 11,87 izan zen.
- Udaletxe barruko espazioak berritzeko proiektuagatik emandako ordainsaria, kostuaren % 11,13 izango litzateke, Udalak aurreikusitako aurrekontuaren gainean.
- Eta botika-kutxaren proiektuagatik emandako ordainsaria, obraren aurrekontuaren % 11,63 izan da.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) adierazi du argi dagoela proiektua idazteagatik ordaindu beharreko kopurua ez dela garestia, aurretik esleitutako beste hainbat zerbitzuekin alderatzen badugu.

Lauren jaunak (BILDU) esan du aurreko legegintzaldian ere Ikastolaren aparkalekuaren proiektua egiteko eskatu zitzaizola udaleko aparejadoreari, egoera premiazkoa zelako; baina bere taldeari lan hori azpikontratatu egin behar dela iruditzen zaio, beste aurrekontu batzuekin alderatzeko eta lana banatzeko.

Esteban jaunak (BILDU) adierazi du esleipen horri buruzko datuak falta zaizkiola.

7.- Honako hauen berri ematea: udal zenbaketen aktak, gastuen eta sarreraren balantzea, libreten egoera eta 2016ko urtarrileko, otsaileko eta martxoko kredituen aldaketak.

Udalbatza jakitun geratu da.

- Hurrengo puntuarekin jarraitu aurretik, alkateak Udalbatzari helarazi dio kreditu gehigarri bat onesteko premiazko puntu bat gehitzeko proposamena, hainbat gastutarako; ez da gai zerrendan sartu, dagokion informazio-batzordean esan denagatik.

Puntu hau gai zerrendatik kanpo sartzeko premia bozkatu da, eta Bertaratutako Udalbatza Osoko kideek (Udalbatza osatzen duten 11 kideetatik 10 kidek) aho batez onetsi dute. Ondorioz, Udalbatzak honako puntu hau eztabaidatuko du:

8.- Onestea, bidezkoa bada, 2/2016 bilkurako kreditu gehigarria.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza Osoko kideek aho batez onetsi dute (11tik 10ek)

Eta hori dela bide, eta

IKUSI DA.- Diruzaintzako soberakinaren zati bat erabili behar dela, Gastu Orokorrak atalekoa eta 2015eko likidazioak emandakoa. Xedea da gastuen partida bat sortzea ezinbesteko ordainketak ordaintzeko, eta ezin delako 2017ko aurrekontua egin arte itxaron.

IKUSI DA.- Kontu-hartzaileak eginiko txostena, aurrekontu-egonkortasuna ez betetzeari buruzkoa, abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauan (17/2014 Foru Arauak Aldatzen duena) jasotakoari jarraituz (Arabako tokiko erakundeen aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzkoa). Txosten hori Udalbatzari erakutsi zaio kreditu aldaketa honekin batera,

AINTZAT HARTU DA.- Honako hauetan xedatutakoa: Arabako Lurralde Historikoko tokiko erakundeen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Araua, Sektore publikoko kontratuei buruzko Legearen testu bateratua onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua eta Tokiko araubidearen oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.

Bertaratutako Udalbatza Osoko kideek (Udalbatza osatzen duten 11 kideetatik 10 kidek) aho batez hau **ERABAKI DUTE:**

Lehenengoa.- Onestea ondoren zehaztutako kreditu gehigarriak:

PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA (€)
1721.421.007	AIARAKO KUADRILLARI EGINDAKO TRANSFERENTZIA, ZARATAREN MAPAGATIK	3.808,51 €
1621.421.003	AIARAKO KUADRILLARI EGINDAKO TRANSFERENTZIA, HHS 2015 BEHIN BETIKO LIKIDAZIOAGATIK	8.422,62 €
241.421.008	AIARAKO KUADRILARI EGINDAKO TRANSFERENTZIA, PECO 2013gatik.	3.133,56 €
135.227.990	SAKABANATUTAKO BASERRIEN GEOERREFERENTZIA ZERBITZUA	18.924,40€

Zenbateko hori ondoren zerrendatzen diren baliabideekin finantzatu da; beraz, espedientea orekatuta dago eta ez da defizitik sortzen:

<u>DIRU SARREREN</u> <u>PARTIDA</u>	<u>IZENA</u>	<u>ZENBATEKOA (€)</u>
87001	DIRUZAINZAREN SOBERAKINA GASTU OROKORRETARAKO	34.289,09 €

Onetsitako kreditu gehigarrien zenbateko osoa finantzatzeko erabiltzen diren diru-sarrera guztien parekoa da.

Bigarrena.- Kontu-hartzaitzak aldaketak egin ditzala aurrekontuaren gastu-egoeran, eta aldaketon eragina berehalakoa izan dadin.

- Hurrengo puntuekin jarraitu aurretik, honako hau proposatzen da: Llanteno Haraneko Arte-Eskolaren idatzia hemen eztabaidatzeko premia onestea; idatzi hori 2016ko apirilaren 4an igorri zuten, eta, akats baten eraginez, ez zen zegokion informazio batzordean landu.

Gentza jaunak aipatutako idatzia irakurri du, eta akta honen I. ERANSKIN gisa erantsi da.

Jarraian premia bozkatu da, eta bertaratutako Udalbatza Osoko kideek (Udalbatza osatzen duten 11 kideetatik 10 kidek) aho batez onetsi dute.

Horrenbestez, honako puntu hau eztabaidatu da.

9.- Onestea, bidezkoa bada, “Llanteno Harana” Kultur eta Arte Elkarteak aurkeztutako eskaera, 2016. urteari dagokion diru-laguntzaren aurrerakinari buruzkoa.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) adierazi du 2015eko diru-laguntzaren amaierako ordainketa egiteke dagoela, justifikazioetan hutsuneak egon direlako, eta berrikusten ari dira.

Idazkariak azaldu du, gaia aztertu gabe, 2015eko diru-laguntzaren aurrerakina ukatu beharko lukeela; izan ere, deialdia ebatzi gabe dago eta bere ustez araudiak ez du ematen aukerarik aurrerakinak emateko oraindik eman ez den diru-laguntza baten kontura.

Iraida andreak (AB) esan du ordainketa hori 2016eko diru-laguntza aurreratuz egiteko aukera bilatu beharko litzatekeela.

Xabier jaunak (AB) berriz dio politikariek arazoak konpontzen saiatu behar dutela, eta kasu honetan, Udalaren erruz atzerapena dagoen kasu honetan.

Gentza jaunak erantzun du, espedienteen izapideetan gertatutako atzerapenetan duten errua kendu gabe, justifikazioak eta dokumentuak aurkezterakoan egondako hutsuneengatik atzerapenak daude.

Lauren jaunak (BILDU) dio diru-laguntza hauek emateko ordenantza bat eta oinarriak baldin badaude, ordenantza hori bete egin behar dela; eta erabaki hau hartzea salbuespen bat eginez, ez da jarduteko modurik egokiena; izan ere, gero horrelako eskaera gehiago iritsiko zaizkigu.

Iraida andreak esan du Llanteno Eskola premiazko egoera ekonomikoan dagoela; izan ere, bazkideek dirua aurreratu behar izan dute ordainketei aurre egiteko. Ulertzen du bere taldeak, politikoki, beharrezko erabakiak hartu behar dituela, eta idazkariak egin beharreko txosten teknikoa egin behar duela.

Lauren jaunak azaldu du bere ustez ordainketa hori egiteak ez dituela arazo ekonomikoak konponduko; bere ustez, egokiena da eskolarekin lankidetzan hitzarmen bat sinatzea.

Xabier jaunak proposatzen du 2015eko diru-laguntzaren % 30 ordaintzea, aurrerakin gisa; eta dagokion diru-laguntza emandakoan, ordainketak egokitzea.

Gentza jaunak esan du salbuespenezko eta premiazko egoera bat denez, ados dagoela 2015ean emandako diru-laguntzaren % 30a ematearekin, aurrerakin gisa. Baina aurretik aurkeztu duten 2015eko justifikazioa ikusiko da, ordainketa arindu litekeen erabakitzeke, modu horretara, premiazko arazoa konponduz.

Lauren jaunak esan du ez daudela ados salbuespen horrekin, araudiak baimentzen ez duelako. Hori dela eta, abstenitu egingo dira.

Idazkariak ohartarazi die, legez, aurreratutako ordainketa hori, eskaera aurrez aztertu gabe, ez dela egokia. Izan ere, ez Legeak, ez udal ordenantzak, ez dute arautzen aukera hori.

Ez da ezer gehiago esan gaiari buruz eta bozkatu egin da. Udalbatzak gehiengo osoarekin (7 aldeko boto: 5 EAJ-PNV + 2 AB, eta hiru abstentzio: BILDU) honako hau erabaki du:

IKUSI DA.- “Llanteno Haran” Arte Elkarteak 2016ko apirilaren 4an aurkeztutako idatzia.

AINTZAT HARTU DA.- 2016ko kirol, gizarte eta kultur arloko diru-laguntzak oraindik ez dira ebatzi, eta 2015eko diru-laguntzen amaierako likidazioak ez dira ordaindu, justifikazioak oraindik ez direlako berrikusi.

HONAKO HAU GERTATU DA.- 2016ko apirilaren 21ean idazkaria-kontu hartzaileak legezko oharra eman zuela.

Udalbatzaren gehiengo osoak honako hau **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- 2015eko kirol, kultura eta gizarte arloko diru-laguntzen amaierako likidazioaren ebazpena bizkortzea.

Bigarrena.- 2015eko diru-laguntzaren kargura ordaindu beharreko zenbatekoa Elkartearen egoera ekonomikoari laguntzeko nahikoa ez bada, 2015ean jaso zuen diru-laguntzaren % 30a ematea, 2016. urtean emango zaion diru-laguntzaren aurrerakin gisa.

10º.- Alkatetza Dekretu hauen berri ematea:

- **Erref.: 70/16.- M.F.B.-** Arespalditzako eraikinaren aurri-egoeraren espedienteari buruzko dokumentazioa eskatzea.

- **Erref.: 71/16.- I.O.A.-** Obrak legeztatzeke udal lizentzia ematea, Madarian estalkia ordezkatzeko eta euste-horma bat eraikitzeke.

- **Erref.: 72/16.- A.V.P.-** Lehen aldiz erabiltzeko udal lizentzia ematea, garaje gisa erabiltzeko eraikin osagarriko, Murgako lursail batean eraikitakoa.

- **Erref.: 73/16.- Orixe Comercial, SL.-** Lehen aldiz erabiltzeko behin-behineko baimena ematea, Zuazako La Llana auzoko 28 zenbakian dagoen dorretxean dauden hiru etxebizitzetarako.

- **Erref.: 74/16.- I.G.A. eta L.A.G.T.** Familia bakarreko etxebizitza lehen aldiz erabiltzeko baimena ematea, Menagaraiko 2. poligonoko 816 lursailean dagoena.

- **Erref.: 75/16.- E.R.B.-** Erabiltzeko baimena ematea, Luiaondoko Restergo kaleko 8 zenbakiko bi familiako etxebizitzetarako.

- **Erref.: 76/16.- A.L.A.-** Obren lizentzien espedienteari amaiera ematea.

- Murgako baserri bateko estalkia eta aurrealdea konpontzeko.

- **Erref.: 77/16.- Quesería Izoria, SL.-** Gazta eta ezitia egiteko lokal bat egokitzeko obren lizentziaren espedienteari amaiera ematen.

- **Erref.: 78/16.- “Llanteno Harana” Kultur eta Arte Elkartea.-** 2015eko diru-laguntza justifikatzeko dokumentuak eskatzea.

- **Erref.- 79/16.- Onestea F/2016/2 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.**

- **Erref.: 80/16.-ABERE ZERBITZU TEKNIKOAK KOOP.** Pirinioetako haziendaren Arabako II. Txapelketa antolatzeke zerbitzua esleitzea.

- **Erref.: 81/16.-** Urbegi Servicios Medioambientales, SLU enpresari esleitzea eraikin publikoak garbitzeko zerbitzua.

- **Erref.: 82/16.-** 2012ko abenduko aparteko ordainsariaren % 49,73 ordaintzea Udal honetako funtzionario eta langileei.

- **Erref.: 83/16.-** Onestea Aiarako Udalak Amurrioko Udalaren “Oxigenoa Euskarari” programan parte-hartzea.

- **Erref.: 84/16.- E.H.L.-** Obren udal lizentzia ematea, Izoriako etxebizitza bateko garajearen sarbidea konpontzeko, bidea asfaltatzeko eta areka bat eratzeko.

- **Erref.: 85/16.-** Onestea errepideen eta horien loturen garbiketa mekanikorako zerbitzuaren kontratazio espedientea.

- **Erref.: 86/16.- J.L.B.S.-** Obren udal lizentzia ematea, Luiaondoko garaje bateko atea aldatzeko.

- **Erref.: 87/16.- I.I.A.-** Obren lizentzia ematea, Murgako etxebizitza bateko beheko solairuan txoko bat jartzeko.

- **Erref.: 88/16.- I.I.A.-** Bermea eskatzea, Murgan tresnak gordetzeko etxola bat eraikitzeke obren hondakinak kudeatzeko.

- **Erref.- 89/16.- Sojoko Administrazio Batzarra.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Sojoko bolatokia egokitzeko.

- **Erref.- 90/16.- I.A.U.-** Obrarako udal-lizentzia ematea Izorian dagoen lursail batean itxitura bat jartzeko.

- **Erref.: 91/16.- M.I.C.D.L.T.-** Obrarako udal-lizentzia ematea Beotegiko 6 zenbakiko poligonoko 347 lursailean dagoen labea berritzeko.

- **Erref.: 92/16.- R.M.M.I.-** Jarduera legeztatzeke lizentzia ematea, Salmanton udalerrian haragitarako behien haragitarako abeltzaintza-ustiategirako.

- **Erref.: 93/16.- Comercial de Limpiezas Villar, SA.-** Baimena ematea eraikin publikoak garbitzeko zerbitzuaren kontratazio espedientea ikusteko.

- **Erref.: 94/16.- L.L.S.-** Familia bakarreko etxebizitza lehen aldiz erabiltzeko behin betiko lizentzia ematea, Izoriako 5. poligonoko 2382 lursailean.

- **Erref.: 95/16.- A.J.E.B.-** Llantenoera eraikin bateko estalkia berritzeko obrak amaitzeko eskatzea.

- **Erref.: 96/16.- TATEC.-** Luiaondoko erabilera anitzeko eraikinean dagoen mediku-kontsultako Harrera, Artatze eta Sailkapen gunean altzariak jartzeko eta hornitzeko kontratua esleitzea.

- **Erref.: 97/16.-** Alkatearen 1/2016 kreditu gehigarriaren espedientea.
- **Erref.: 98/16.- Ecothermia Velez Instalaciones, SL.-** Aldez aurretik jarduera sailkatuaren berri ematea, Zuazako lursail batean gas propanozko lurrazpiko depositu bat jartzeko.
- **Erref.- 99/16.- DAG.-** Obrarako udal lizentzia ematea Menagaraien dagoen eraikinaren estalkia zaharberitzeko eta fatxadan tartea irekitzeko.
- **Erref.: 100/16.- PORMANORTE.-** Kontratu txikia esleitzea, beheko solairua hornitzeko eta bertan ate automatikoa jartzeko.
- **Erref.: 101/16.- SISTEMAS DE OFICINAS DE VIZCAYA -2-** Kontratu txikia esleitzea, CANON fotokopiagailu bat hornitzeko eta jartzeko.
- **Erref.: 102/16.- PHASE, SL.-** Kontratu txikia esleitzea, megafonia hornitzeko, jartzeko eta kontratu txikia esleitzea kartel digitalak hornitzeko eta jartzeko.
- **Erref.: 103/16.-** Eskaintza teknikoak eta ekonomikoak aurkezteko epea zabaltzea, Udaleko sistema informatikoaren laguntza teknikoa, kudeaketa, mantenua eta konponketa kontratuaren lizitaziorako.
- **Erref.: 104/16.- I.I.A.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Murga udalerriko familia bakarreko etxebizitza baten ondoan tresnak gordetzeko etxola bat eraikitzeko.
- **Erref.: 105/16.- M.I.C.A.-** Costerako lursail batean nekazaritzarako tresnak gordetzeko eraikitako etxola erabiltzeko baimena ematea.
- **Erref.: 106/16.- Luiaondoko Administrazio Batzarra.-** Bermea itzultzea, “Luiaondoko frontoiko aurrealdea eta alde bat ixteko” obraren hondakinen kudeaketa bermatzeko jarritakoa, hain zuzen ere.
- **Erref.: 107/16.- Luiaondoko Administrazio Batzarra.-** Bermea itzultzea, “Luiaondoko frontoiko metalezko egitura indartzea” obraren hondakinen kudeaketa bermatzeko jarritakoa, hain zuzen ere.
- **Erref.- 108/13.- L.T.M.-** Eskatu zaio eskatutako obra lizentziaren espedienteari dagokion dokumentazioa zabaltzeko.
- **Erref.: 109/16.-** E.V.P.ri bermea itzultzea.- Behin betiko bermea itzultzea, kontratua amaitu delako.
- **Erref.: 110/16.- Construcciones Ugarteko, SL.-** Dokumentazioa eskatzea, Luiaondoko UEleko hondakin urak tratatzeko sistemaren konponketa espedienteari buruzkoa, hain zuzen ere.
- **Erref.: 111/16.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Murga udalerrian dagoen tresnen etxola baten estalkia konpontzeko.
- **Erref.: 112/16.- Etxaurren Ikastolako GIE.-** Dokumentazioa eskatzea, 2015ean jarduerak antolatzeko emandako diru-laguntza justifikatzeko.
- **Erref.: 113/16.- Aiarako Bolatoki Taldea.-** Dokumentazioa eskatzea, 2015ean jarduerak antolatzeko emandako diru-laguntza justifikatzeko.
- **Erref.: 114/16.- Depumaste, SL.-** “Luiaondoko EDAR sistema aldatzeko” obrari dagokion bermea itzultzea.
- **Erref.: 115/16.- F.Z.G.-** Obrak hasteko udal-lizentzia, Quejana udalerrian tresnak gordetzeko etxola bat eraikitzeko.
- **Erref.- 116/16.-** Bitarteko funtzionarioa izendatzea, aitatasunagatiko ordezkapena egiteko.
- **Erref.: 117/16.- Viesgo Energía, SL.-** Likidatzea lurzorua okupatzeagatiko tasa (2015eko 4. hiruhilekoa).
- **Erref.-118/15.-** Naturgas Energía Distribución SAU.- Likidatzea lurzorua okupatzeagatiko tasa (2016ko 1. hiruhilekoa).

- **Erref.:- 119/16.- Abere teknikoak Koop.S.-** San Isidroko Azokan azoantzerakusketarako zerbitzua esleitzea.

- **Erref.:- 120/16.- Onestea F/2016/3 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.**

- **Erref.:- 121/16.- Diru-laguntza eskatzea, emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren arloan jarduerak antolatzearako eta programak garatzeko (2016 ekitaldia).**

- **Erref.:- 122/16.- C.C.R.-** 2014-2015 ikasturtean euskara ikasteko diru-laguntzak ebazten dituen Alkatetza Dekretuaren aurka aurkeztutako alegazioa onestea.

- **Erref.:- 123/16.- J.U.P.-** 2014-2015 ikasturtean euskara ikasteko diru-laguntzak ebazten dituen Alkatetza Dekretuaren aurka aurkeztutako alegazioa onestea.

- **Erref.:- 124/16.- M^aR.G.M.-** 2014-2015 ikasturtean euskara ikasteko diru-laguntzak ebazten dituen Alkatetza Dekretuaren aurka aurkeztutako alegazioa baztertzea.

- **Erref.:- 125/16.- E.A.M.** 2014ean EAEko kiroldegietako kuotak ordaintzeko diru-laguntzak ebazten dituen Alkatetza Dekretuaren aurka aurkeztutako alegazioa baztertzea.

- **Erref.:- 126/16.- H.S.P.-** 2014ean EAEko kiroldegietako kuotak ordaintzeko diru-laguntzak ebazten dituen Alkatetza Dekretuaren aurka aurkeztutako alegazioa baztertzea.

- **Erref.- 127/16.- Axpo Iberia, SL.-** Likidatzea lurzorua okupatzeagatikoko tasa (2016ko 1. hiruhilekoa).

- **Erref.:- 128/16 .-EDP Comercializadora, SAU -** Lurzorua okupatzeagatikoko tasa likidatzea (2016ko 1. hiruhilekoa), **kontzeptua: argindarra eta gasa.**

- **Erref.:- 129/16.- J.U.Z.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Luiaondo udalerrirako eraikin baten estalkia konpontzeko.

- **Erref.- 130.- Olabazarreji Administrazio Batzarra.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Olabazarreko Arzosteko bidea konpontzeko.

- **Erref.- 131.- A.H.C. eta A.M.I-** Agiri gehiago eskatzea, Etxegoien udalerrirako familia bakarrekoko etxebizitza eraikitzeko obrarako lizentziaren espedientearen inguruan.

Iraida andreak (AB) adierazi du ABEREn bi esleipen daudela, eta jakin nahi du ea bat erakusketarako egiteko den, eta bestea Pirinioetarako azoantzeraren lehiaketarako.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) baietz erantzun du.

11º.- Galderak eta eskaerak.

- Lauren jaunak (BILDU) eskatu du ea Luiaondoko erabilera anitzeko eraikinaren gastu eta sarreraren amaierarako likidazioa aurkeztu daitekeen.. Eta Osakidetzarekin hitz egin den jakin nahi du, diru-laguntza gehiago jasotzeari dagokionez.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun dio E. Z.-rekin hitz egin zutela, eta hark argi utzi zuela ez zutela aurreikusten obrak finantzatzeko ildo berri bat ateratzea, eta ez dutela bestelako biderik diru-laguntzak emateko.

Lauren jaunak esan du hori ez dela Josurekin ahoz hitzemandakoa.

Iñigo jaunak (EAJ-PNV) azaldu du bilera horretan beraiek esan zutela ez zutela inongo konpromisorik hartu.

Lauren jaunak erantzun dio lehengo kontsulta zaharreko gastuak konpentsatzeko konpromisoa hartu zutela.

Iñigo jaunak dio azaldu zirela egoera hori, baina esan zirela hori C kategoriakoa zela, eta, hortaz, ez zituztela mantentze-gastuak euren gain hartuko.

Gentza jaunak adierazi du bilera horretan esan zitzaiera kontsulta guztiak ez zaizkiola Osakidetzari ematen.

Gai horren harira, Gentza jaunak jakinarazi du maiatzaren 6an, goizeko 11:00etan, kontsulta berria inauguratzea aurreikusten dela. Asteburu horretan eramango dute mediku-materiala, eta hurrengo astean hasiko dira kontsultak bertan. Dena den, oraindik ez da ofizialki baieztatu.

- Esteban jaunak (BILDU) dio idazkariak mezu bat bidali zuela esanez Limpiezas Villar enpresak errekurtsio bat jarri zuela. Gai hori nola dagoen jakin nahi du.

Idazkariak erantzun du Limpiezas Villar enpresak errekurtsio bat jarri zuela zerbitzuaren esleipenaren aurka, puntuazioarekin ados ez zegoelako. Errekurtsioa (arautze harmonizatuari lotutako kontratua izanik) Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsioen Organoan jarri zen. Beraiek jada eskatu digute espedientea eta guk telematikoki bidali diegu. Erantzunaren zain gaude. Ikusiko dugu ea aintzat hartzen duten ala ez, eta atzera egin beharko dugun ala ez.

Osoko bilkurari amaiera eman aurretik, Gentzak jaunak (EAJ-PNV), gogorarazi die hurrengo egunean, hilaren 22an (ostirala), arratsaldeko 19:00etan hasiko direla Aiarako Jaiak, txupinazoarekin.

Jorrazteko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du zortziak eta hogeita minutu direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezten, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hamaseiko apirilaren hogeita batean.

OE
ALKATE-UDALBURUA,

IDAZKARIA,

Izpta.: Gentza Alamillo Udaeta.

Izpta.: Naiara Lazpita Marcos.

- ANEXO I -

Luis Padura Elorza, con DNI 72.712.404-C y Presidente de la Asociación Cultural Artística Valle de Llanteno, en representación de la misma, se dirige a esa Entidad con intención de EXPONER QUE:

- La Asociación Artística Valle de Llanteno tiene un recorrido de trabajo de 30 años y cada sábado, en base al curso escolar, imparte clases de dibujo, cerámica, pintura y talla de madera en los locales del edificio de las escuelas del pueblo de Llanteno.
- Para garantizar una buena formación artística en las diversas disciplinas señaladas anteriormente, la Asociación tiene contratadas varias profesoras, las cuales cobran mensualmente.
- Además de las clases señaladas, durante el año programa diversas actividades con intención de promover la cultura en el Municipio, todas ellas abiertas a la población.
- Anualmente suele solicitar ayuda económica tanto al Excmo. Ayuntamiento de Ayala como a la Excma. Diputación Foral de Álava, dentro de la convocatoria de subvenciones para Asociaciones que cada Entidad estima.
- Los últimos años ambas Entidades han retrasado la convocatoria y por ello la resolución, habiendo causado un trastorno importante en la dinámica de la Asociación y habiendo tenido que plantear entre los socios el adelanto de dinero para poder hacer frente a los gastos que se generan.
- Actualmente, teniendo en cuenta que los gastos mensuales ascienden a 650€, debido a las nóminas, la seguridad social de las profesoras y la retención del IRPF, los socios se han visto ya obligados a adelantar dinero.
- La situación económica cada vez es más complicada y resulta insostenible continuar con la programación de la Asociación sin que las Entidades públicas concedan las ayudas para principios de año y hagan un primer ingreso que permita funcionar con normalidad.

Por todo lo anteriormente expuesto y teniendo en cuenta que aún la resolución de la subvención de esa Entidad para el 2016 necesitará de un periodo de tiempo para ser efectiva, **se solicita sea concedido un adelanto de la subvención correspondiente al presente año, para poder recuperar el dinero ya aportado por los socios, para seguir pagando al profesorado y poder seguir funcionando con normalidad hasta la concesión de la misma.**

En espera de conseguir una resolución rápida y favorable por parte de esa corporación que Vd. preside, además de mostrar disposición para aclarar cualquier duda que pueda surgir, se despide atentamente,



Luis Padura Elorza
Luis Padura Elorza
Presidente de la Asociación

Data	16. ABR 2016 Fecha
Sarrera Entrada	991
* Irteera Salida	

En Llanteno, a 1 de abril de 2016

SR. D. GENTZA ALAMILLO UDAETA.
AIARAKO UDALA – AYUNTAMIENTO DE AYALA